Arratia
"Bidean Gagoz"
nº 7 2006 diciembre Revista de información trimestral



tema que están trabajando.
Dentro de este proceso está previsto, tal y como hicieron el pasado curso, la celebración de varios Foros en cada uno de los municipios, donde los escolares plantean diversos temas a sus alcaldes: el primero para recordar las propuestas del año anterior y presentar el proyecto actual y el segundo para presentar el Plan de Acción y las propuestas de mejora al Ayuntamiento.

## EN ARRATIA YA PODEMOS USAR BIODIESEL

Desde mediados de noviembre, en Arratia podemos utilizar BioDieSel en nuestros coches, al instalarse un surtidor de este tipo de combustible en la gasolinera de Artea.
El BIODIESEL es un combustible renovable y limpio (combustible vegetal), que además contribuye a la conservación del medio ambiente, gracias a la utilización como materia prima de aceites vegetales (vírgenes y reciclados).
El BioDieSel se puede utilizar en todo tipo de vehículos que funcionen con gasoil sin tener que efectuar ningún tipo de modificación en el motor y su rendimiento y consumo es idéntico al del gasóleo convencional.
En nuestro caso, la mezcla es de 12% BioDieSel y 88% gasóleo. Si tienes alguna duda pregunta en el punto de suministro.




# AGENDA 21 ESCOLAR
## Educándonos para la sostenibilidad

### El curso pasado los alumnos se ocuparon del "agua"

Durante el curso pasado, 2005-2006, las escuelas de Dima, Igorre y Zeanuri, así como Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastegia, trabajaron el tema del "agua" dentro del proyecto de la Agenda Escolar 21. Por ser el primer año no faltaron las prisas y se acusó cierta inexperiencia pero de todas formas el trabajo desarrollado por los centros educativos fue muy interesante.
Después de elaborar un diagnóstico y establecer una serie de objetivos, se definieron un conjunto de acciones destinadas principalmente a sensibilizar a la población escolar sobre el uso eficiente y responsable del agua. También se plantearon propuestas en ese sentido a los alcaldes en los Foros celebrados en cada uno de los 3 municipios inmersos en el proyecto.

### Este curso el tema elegido ha sido "los residuos"

Este curso, el tema elegido ha sido el de los residuos y se utilizará la misma metodología que el curso pasado. En esta ocasión las escuelas analizarán conceptos tales como reducción, reutilización y reciclaje de residuos, consumo responsable, la huella ecológica, el cambio climático, etc. En cada centro se han creado ya los Comités Ambientales integrados por alumnos, profesores, personal no docente y padres y madres, encargados de llevar el seguimiento del proyecto, proponer nuevas actuaciones, etc. Como forma de sensibilización destacan los "txoko berdeak", ubicaciones especiales en las escuelas donde se exponen los materiales, documentación, murales, fotos, etc. relacionados con el

Lege gordailua: SS-24/05 Itxaropena 3004-006

Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco, Departamento de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio
BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia – Diputación Foral de Bizkaia
Arratia
Udalsarea 21

ARRATIA 7 6/12/06 09:23 Página 4



# PLAN DE MOVILIDAD DE BEDIA






## LA CAUSA

### Los principales problemas con los que Bedia cuenta en la actualidad

- La N-240 constituye la principal vía de comunicación del municipio con el exterior. Esta vía genera indudables problemas de ruido, contaminación atmosférica y seguridad vial.
- Por otra parte, se intuyen ciertas deficiencias de la estructura viaria actual que podrían mejorarse notablemente a través de la realización de acciones concretas que permitan obtener, por ejemplo, un esquema viario más ordenado y claro, una mayor seguridad vial, más espacio y de más calidad para los peatones y las bicicletas y una oferta de aparcamiento ordenada.

## El OBJETIVO

### El municipio de Bedia quiere promover una movilidad más sostenible

El municipio de Bedia, se encuentra en proceso de ejecución del Plan de Acción Local para la Sostenibilidad elaborado en el marco del programa Agenda Local 21. Una de las líneas estratégicas definidas en dicho Plan de Acción es la de promover una movilidad mejor y más sostenible para los habitantes del municipio. En este sentido, el Plan de Movilidad comarcal elaborado desde la Mancomunidad de Arratia constituye un primer paso para conocer la problemática de la movilidad en este municipio y anticipar las líneas por las que se podrían desarrollar las actuaciones futuras. Sin embargo, se hace necesaria una mayor concreción en la determinación de las posibles actuaciones a desarrollar.

## UN PASO IMPORTANTE

### Se elaborará un estudio previo de alternativas y propuestas de mejora

Con el fin de dar respuesta a estas demandas, las empresas Ondoan-LKS realizarán un Estudio Previo de alternativas y propuestas de mejora de la estructura viaria y peatonal de este municipio y su anclaje con el proceso de Agenda Local 21.

**OBJETIVOS:**

- Elaboración de un Estudio Previo de Alternativas y propuestas de mejora de la estructura viaria y peatonal de este municipio.
- Diseño y dinamización del proceso participativo requerido para tener en cuenta la visión de la población en la redacción de dichas propuestas y la incorporación de las mismas al Plan de Acción Local para la sostenibilidad de Bedia.

Finalmente, se procederá a la identificación y caracterización completa de las acciones definidas, procediendo a la actualización del Plan de Acción en los programas y acciones que corresponda.

Para que este proceso tenga éxito, es imprescindible la participación ciudadana, es por esto que se abrirán varias vías de participación para que los ciudadanos puedan expresar sus propuestas y opiniones.

# SEMANA EUROPEA DE LA MOVILIDAD SOSTENIBLE 2006

## VALORACIÓN

**Desde el 16 al 22 de septiembre se celebró la Semana Europea de la Movilidad Sostenible, con el tema del Cambio Climático, en la que la participaron la mayoría de los municipios de Arratia. Entre las actuaciones que mayor acogida han tuvieron, destacan la conexión Artea-Areatza mediante tren turístico durante la feria de MERKARTEA, el OINEZBUSA y la JORNADA TÉCNICA SOBRE MOVILIDAD DE ARRATIA.**

### El tren turístico: una novedad interesante

La utilización de este tren que iniciaba su recorrido en **MERKARTEA** como modo de transporte alternativo ha supuesto una novedad y una experiencia interesante. No pocas personas, de todas las edades, han propuesto su funcionamiento durante los fines de semana, uniendo los municipios de Artea, Areatza y Zeanuri. Algunos incluso proponen que vaya desde Areatza hasta Pagomakurre.

Además de la atracción del tren turístico, durante la jornada celebrada en el recinto de **MERKARTEA** se colocó un stand en el que los ciudadanos podían recoger información sobre la campaña europea y al mismo tiempo dar su opinión. Se sortearon varias bicicletas y otros premios entre las personas que participaron con sus aportaciones en forma de propuestas para mejorar la movilidad comarcal.

## PROPUESTAS DE LOS CIUDADANOS

- Mayor número de autobuses directos a Bilbao y también durante los fines de semana.
- Autobús nocturno los fines de semana y fiestas.
- Transporte público interno en Arratia y conexión rápida con el tren en Lemoa.
- Tranvía de Arratia.
- Mejores conexiones con Amorebieta y Durango.
- Más bidegorris.
- Más zonas peatonales y conexión peatonal entre municipios.
- Medidas para disminuir el uso del coche.
- Sacar los coches del interior de los pueblos.
- Construcción de aparcamientos disuasorios

### 160 escolares en el OINEZBUSA

En cuanto al **OINEZBUSA**, la participación ha sido muy alta en Areatza, Igorre, Lemoa y Zeanuri y la experiencia muy positiva, ya que tomaron parte más de 160 escolares de estos municipios.

Tomando el ejemplo de otros países como Francia y Gran Bretaña, se organizó el **OINEZBUSA** que desde el 18 hasta el 22 de septiembre llevaba a los alumnos que participantes andando a la escuela, acompañados por monitores y madres y padres voluntarios que los recogían a las horas indicadas en las paradas que se establecieron. Lo mismo ocurría a la salida de clase.



En resumen, el **OINEZBUSA** funciona igual que un autobús, con la diferencia de que las emisiones de dióxido de carbono son nulas.

### La Jornada técnica de Movilidad arropada por la presencia de las instituciones vascas

Otra actuación de interés ha sido la celebración de la "2ª Jornada Técnica sobre Movilidad de Arratia" en el ayuntamiento de Areatza, que contó con la presencia de políticos y técnicos municipales y comarcales de Arratia y responsables del Gobierno Vasco y la Diputación Foral de Bizkaia. Recogemos a continuación los objetivos y conclusiones más impotantes de La Jornada.

## OBJETIVOS Y CONCLUSIONES

- Desarrollar el Plan de Movilidad Comarcal.
- Mejorar la accesibilidad a Arratia: autovía Boroa-Lemoa, variante de Igorre, completar el tercer carril de Barazar, etc.
- Fomentar el uso del ferrocarril y, por qué no, plantearse la recuperación del tranvía de Arratia.
- Conexión rápida mediante transporte público desde la estación de Lemoa al resto de Arratia, o al menos hasta Igorre.
- Mejora del transporte universitario, especialmente a la universidad de Leioa.
- Transporte público nocturno.
- Tranquilización del tráfico.
- Sacar los coches de los cascos urbanos, para ganar en espacios públicos y zonas de preferencia para el peatón.
- Construcción de zonas de aparcamiento disuasorio y aparcamientos para residentes.
- Compartir coche.
- Construcción del bidegorri de Arratia y bidegorris municipales.
- Fomentar el uso racional del vehículo privado, favoreciendo la utilización de otros medios de transporte alternativos y menos contaminantes.
- Aunar esfuerzos entre los municipios de Arratia para llevar a cabo de una manera conjunta la mejora de la movilidad comarcal, creando para ello algún organismo de gestión que impulse las propuestas que se generen.
- Aumentar las zonas peatonales dentro de cada municipio y conectar unos con otros.

Arratia

# COMPROMISOS SOCIOECONÓMICOS EN LOS PLANES DE ACCIÓN LOCALES

En la Conferencia de Aalborg+10, celebrada en julio de 2004, los Gobiernos locales participantes en la Campaña de Pueblos y Ciudades Europeas Sostenibles adquirieron una serie de compromisos para garantizar un futuro sostenible a las comunidades locales.

Estos compromisos abarcan temas como la gobernabilidad, la gestión municipal sostenible, el uso eficiente de los recursos naturales, el consumo responsable, la movilidad sostenible, la salud, etc. pero también aspectos socioeconómicos, todos ellos necesarios para un desarrollo sostenible de nuestros municipios.

## Los compromisos socioeconómicos de Aalborg+10

**COMPROMISO 8: ECONOMÍA LOCAL PUJANTE Y SOSTENIBLE:** "Nos comprometemos con la creación y consolidación de una economía local pujante que permita el acceso al empleo sin dañar el medio ambiente". Por ello, trabajaremos para:

- Adoptar medidas que estimulen y respalden el empleo local y a los emprendedores.
- Cooperar con las iniciativas locales para la promoción e instauración de buenas prácticas corporativas.
- Desarrollar e implementar principios de sostenibilidad en la ubicación y desarrollo de negocios.
- Alentar mercados locales de alta calidad y de integración regional.
- Promover el turismo local sostenible.

**COMPROMISO 9: EQUIDAD Y JUSTICIA SOCIAL:** "Nos comprometemos con ciudades inclusivas y solidarias" Por ello, trabajaremos para:

- Desarrollar e implementar programas que prevengan y alivien la pobreza.
- Asegurar el acceso equitativo a los servicios públicos, la educación, las oportunidades de empleo, la capacitación y las actividades culturales.
- Impulsar la inclusión social y asegurar la igualdad de derechos y oportunidades.
- Procurar viviendas y condiciones de vida de calidad y socialmente integradas.

## Estos compromisos están concretados en los Planes de Acción Local de Agenda 21 de los muncipios

La Agenda Local 21 es una de las herramientas más eficaces para un adecuado desarrollo de estos compromisos, concretados en los Planes de Acción Local de cada uno de los municipios.
En lo que respecta a los aspectos socioeconómicos, destacan las siguientes Líneas Estratégicas (objetivos generales) y Programas de Actuación (objetivos específicos):

- Desarrollo y acondicionamiento de infraestructuras para la mejora de las condiciones socioeconómicas.
- Promoción de actividades socioculturales.
- Promoción y diversificación de actividades económicas: comercio, turismo, etc.
- Programa de formación y empleo.
- Desarrollo de una política de vivienda que satisfaga a las necesidades de la población local.

## Es imprescindible la colaboración entre ayuntamientos y entidades comarcales

Para llegar a definir, concretar y desarrollar las acciones y actuaciones necesarias para cumplir estos objetivos, la participación y colaboración entre los propios Ayuntamientos y las demás entidades comarcales, como Arratiako Udalen Mankomunitatea, Arratiako Behargintza y Gorbeialde son imprescindibles.
Por todo ello, se está trabajando coordinadamente para que cada municipio defina sus acciones prioritarias en este campo y las asuma como parte de su Plan de Acción Local.
Como ejemplo de la colaboración comarcal, se ha considerado de interesante dar a conocer el trabajo de las diferentes entidades de Arratia en estas páginas.
El Desarrollo Sostenible es cosa de todos y todas.



### Arratiako BEHARGINTZA

# "Fomentamos el desarrollo de la comarca como centro de empleo"

## Ofrecemos un servicio a aquellos que quieren crear su propio negocio

Arratiako Behargintza trabaja en el desarrollo de Arratia como centro de empleo y desarrollo comarcal. En la labor de impulsar el desarrollo, entre otras opciones, ofrece un servicio dirigido a personas que quieren crear su propio negocio. La última empresa que se ha puesto en marcha desde el servicio de autoempleo es la agencia de viajes "Viajes Ecuador". La promotora de este proyecto empresarial es la arratiana Almudena Jordán. Almudena planteo al Behargintza la idea de negocio que tenía en mente, hoy en día esa idea se ha convertido en realidad y Almudena tiene su propio negocio. Para ello, el Behargintza le ha ofrecido formación en la Gestión del Negocio y asesoramiento en los pasos previos a la puesta en marcha de la empresa, como por ejemplo, en la maduración de la idea, en el estudio de viabilidad de la empresa, en la obtención de financiación y subvenciones, etc.




## Tambien a autónomos que cuentan ya con su propia empresa

Arratiako Behargintza, para fomentar el desarrollo de la comarca, además de dar servicio a las personas que quieren crear su propio negocio, ofrece programas dirigidos a las personas que tienen creada ya su propia empresa. El 13 de noviembre por ejemplo, se puso en marcha un programa formativo denominado "Mejora en la Gestión del Comercio" dirigido a comerciantes/as autónom@s. En este programa, entre otros se trabajaran aspectos como las técnicas de comunicación y atención al cliente, la gestión del negocio y las aplicaciones informáticas.
Resumiendo, Arratiako Behargintza ha extendido el perfil de usuari@s a los que dirige sus servicios. Los servicios ofrecidos a personas físicas, además de estar dirigidos a personas desempleadas y a personas trabajadoras por cuenta ajena, están también diseñados para personas autónomas. L@s autónom@s se pueden beneficiar a su vez de los servicios que el Behargintza ofrece a las empresas de la zona, por su condición de empresari@s.

### Asociación de Desarrollo Rural GORBEIALDE

# "Hemos instalado la señalética de los barrios da Arratia para que los portadores de servicios y turistas lleguen con facilidad"

Tengamos en cuenta que la mayor parte de los municipios de Arratia son grandes en su extensión y están integrados por numerosos barrios más o menos dispersos. Llos arratianos conocemos los nombres de nuestros barrios y más o menos somos capaces de ubicarlos físicamente, pero la realidad actual es que, por un lado los servicios que se nos prestan y por otro los visitantes que nos llegan son cada día más numerosos, por lo tanto que los "autóctonos" conozcamos dichas ubicaciones no es suficiente.

## Señales de diferentes colores y modelos con toponimia oficial

Recientemente, en los cruces de carreteras que acceden a los diferentes barrios se han instalado numerosas señales, de diferentes colores y modelos (verdes, blancos, de madera...) con una toponimia oficial que a veces no coincide con la forma hablada. A mi entender un aspecto positivo éste que gracias a la labor de Euskaltzaindia, nos enriquece a todos. De todos modos, una de las deficiencias que nos preocupaban en Gorbeialde está ya solucionada pues, los Ayuntamientos se han concienciado de la importancia de esta infraestructura (señalización) y prácticamente todos los municipios han desarrollado ésta área con señales, mapas municipales, callejeros...

Desde la Asociación Gorbeialde se han apoyado algunos de estos proyectos, alguno que otro se nos ha quedado en el camino y en un futuro cercano tendremos nuevas formas de señalizar nuestros barrios y caseríos, pues somos conscientes de la importancia de que nos lleguen sin perderse los servicios de urgencia: médico, bomberos, ertzaintza, ambulancia... y por qué no el turista que pueda comprarnos productos autóctonos (queso, chorizos o pan de caserío) o que vaya buscando un caserío de agroturismo.

Desde Gorbeialde desarrollaremos nuevas formas de llegar a nuestro caseríos, pero seguimos siendo receptores de otras ideas, ¿por ejemplo, la tuya?



# Arratia
"Bidean Gagoz"

7. zk. 2 0 0 6 abendua Hiruhilabeteroko informazio aldizkaria







# ESKOLAKO AGENDA 21

## Geure burua iraunkortasunean hezitzen jarraitzen dugu

### Iazko ikasturtean ikasleek "ura" landu zuten

2005-2006 ikasturtean, Dima, Igorre eta Zeanuriko eskolak eta Zulaibar Arratiako Lanbide Ikastegia "ura"ren gaiaz arduratu ziren Eskola Agenda 21aren proiektuaren barnean. Aurreneko urtea izateagatik presak eta esperientzia falta pairatu izan zituzten eskolek neurri batean, baina lan oso interesgarria burutu zuten.

Diagnostikoa egin eta hainbat helburu ezarri ondoren, uraren erabilera eraginkorra eta zentzuzkoa bultzatzeko gehienbat eskola umeei zuzendutako ekintza sorta zehaztu zuten. Proiektuaren barnean ziren hiru herrietan foroak antolatu ziren alkate bakoitzari helburu berbera zuten proposamenak luzatu ahal izateko.

### Aurten aukeratutako gaia "hondakinak" izan da

Aurten, "hondakinak" gaia aukeratu dute eta iazko metodologia berbera erabiliko dute. Oraingoan, eskolan aztertuko dituzten kontzeptuak izango dira, besteak beste, hondakinak murriztea, berrerabiltzea eta birziklatzea; kontsumo arduratsua, aztarna ekologikoa , klima aldaketa…

Eskola bakoitzean ikaslez, irakaslez, irakasleak ez diren eskolako langilez eta gurasoz osatutako Ingurumen Batzordeak sortu dira dagoeneko eta Ingurumen Batzorde hauen lana da proiektuaren jarraipena egitea, ekintza berriak proposatzea e.a. Sentsibilizazio tresna gisa " txoko berdeak" deiturikoak azpimarratu behar dira; lantzen ari diren gaiaren gaineko materialeak, dokumentazioa, muralak, argazkiak e.a. erakusten dira eskola barneko kokapen berezi hauetan.

Prozezu honen barnean, iaz bezala, eskola umeek dagokien alkateari proposamenak luzatzeko hainbat Foro egingo dira herri bakoitzean: aurrenekoa iazko ikasturteko proposamenak gogorarazteko eta eskuartean darabilkiten proiektua aurkezteko asmoz, eta bigarrena, Ekintza Plana aurkezteko eta Udalari helarazi nahi dizkioten hobekuntza proposamenak adierazteko.

## ARRATIAN ORAIN BIODIESELA ERABIL DEZAKEGU

Azaroaren erditik Arratian BioDieSela erabil dezakegu gure autoetan, Arteako gasolindegian horrelako erregaia saltzen duen gune bat jarri baita. BIODIESELa erregai berriztagarria eta berria da (landare jatorriko erregaia), ingurumena zaintzen laguntzen duena, landare jatorriko olioetan oinarritutako lehengaiak (bai birjinak bai birziklatuak) erabiltzen dituelako.

BioDieSela gasoilez ibiltzen den edozein ibilgailutan erabil daiteke motorrean inolako aldaketarik egin gabe eta haren eraginkortasuna eta kontsumoa betiko gasoilarena berbera da. Guri dagokigunez, nahasketa %12 BioDieSela eta %88 gasolioa da. Inolako zalantzarik baldin baduzu, galde ezazu horniketa gunean.




Eusko Jaurlaritza – Gobierno Vasco
BFA DFB Bizkaiko Foru Aldundia – Diputación Foral de Bizkaia
Arratia
Udalsarea 21

# BEDIAKO MUGIKORTASUN PLANA






## ARRAZOIA

### Bediak gaur egun dituen arazo nagusiak

- N-240a da udalerritik kanpo irteteko komunikazio bide nagusia. Errepide honek zarata, kutsadura atmosferiko eta segurtasun aldetik ukaezineko arazoak sortzen ditu.
- Bestalde, ekintza zehatzen bitartez nabarmen hobetu daitezkeen hutsuneak antzematen dira, esaterako: errepide egitura txukunagoa eta garbiagoa, segurtasun handiagoa, oinezkoentzako eta bizikletentzako leku zabalagoa eta hobea eta aparkaleku eskaintza txukunagoa lortzea.

## HELBURUA

### Bediak mugikortasun iraunkorragoa sustatu nahi du

Agenda 21 programaren barnean iraunkortasunaren aldeko Tokiko Ekintza Plana garatzen ari da Bediako udalerria. Aipatu berri dugun Ekintza Plan horretako lerro estrategiko bat da mugikortasun hobea eta iraunkorragoa sustatzea herritarrentzat. Zentzu horretan, Arratiako Udal Elkartean egindako Eskualdeko Mugikortasun Plana Bediako mugikortasun arazoak ezagutzeko aurreneko pausu bat da, baita etorkizunean gauzatu daitezkeen ekintzak aurreikusteko tresna ere. Dena dela, aurrera jarraitzeko garatu daitezkeen ekintzak gehiago zehaztea beharrezkoa da.

## AURRERAPAUSU GARRANTZITSUA

### Hobekuntza proposamenak eta ordezko aukerak jasoko dituen aurre-azterketa egingo da

Eskaera hauei erantzuna emateko asmoz, Ondoan eta Lks enpresek errepideen eta oinezkoen bide-egituraren hobekuntza proposamenak eta ordezko aukerak jasotzeko aurre-azterketa egingo dute. Hau guztia, jakina, Agenda 21aren prozesuarekin uztartu beharko dute.

**HELBURUAK:**

- Errepideen eta oinezkoen bide-egituraren hobekuntza proposamenak eta ordezko aukerak jasotzeko aurre-azterketa egitea.
- Herritarren partehartze prozesua tajutzea eta dinamizatzea hauen ikuspegia aipatutako proposamenetan kontuan hartzeko eta proposamen horiek Bediako Tokiko Ekintza Planean barneratzea.

Bukatzeko, zehaztutako ekintzen identifikazio eta karakterizazio osoa egingo da eta Ekintza planaren programa eta ekintzak horien arabera eguneratuko dira.

Prozesu honek arrakasta izateko ezinbestekoa da herritarren partehartzea, horregatik herritarrek euren proposamen eta iritziak eman ahal izateko hainbat aukera zabalduko dira.

# 2006KO EUROPAKO MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN ASTEA

## BALORAZIOA

**Irailaren 16tik 22ra bitartean Europako Mugikortasun Iraunkorraren astea izan genuen, bertan klima aldaketaren gaia nagusitu zen eta Arratiako udalerri gehienek parte hartu zuten. Antolatutako ekintzen artean arrakastatsuenak izan ziren MERKARTEA feriaren barnean Artea eta Areatza lotzen zituen tren turistikoa, OINEZBUSA eta ARRATIAKO MUGIKORTASUNAREN GAINEKO JARDUERA TEKNIKOA.**

### Tren turistikoa: berrikuntza interesgarria

Bere Ibilbidea **MERKARTEAN** hasten zuen tren honen erabilera ordezko garraiobide bezala esperientzia berria eta interesgarria izan zen. Adin guztietako hainbat herritarrek astebukaeretan tren hau martxan jarri eta Artea, Areatza eta Zeanuri lotzea proposatu zuten. Zenbaitek Areatzatik Pagomakurrera arte heltzea ere proposatu zuen. Tren turistikoaz gain, **MERKARTEAN** izan ziren ekintzen artean informazio stand bat ere aipatu behar da. Bertaratzen ziren herritarrek, Europako kanpainaren berri jasotzeaz gain, euren iritzia emateko parada zuten han. Hain zuzen ere, eskualdeko mugikortasuna hobetzeko proposamenak luzatu zituzten herritarren artean bizikletak eta beste hainbat sari banatu ziren.

### HERRITARREN MUGIKORTASUN PROPOSAMENAK

- Bilbora autobus gehiago jarri, baita asteburuetan ere.
- Gau-autobusa astebukaera eta festetan.
- Arratia barnean garraiobide publikoa jarri eta Lemoako trenarekin lotura azkarra lortu.
- Amorebieta eta Durangorekin lotura hobeak izatea.
- Bidegorri ugariagoak.
- Oinezkoentzako bide gehiago jarri, baita herri arteko loturei dagokionez ere.
- Kotxearen erabilera murrizteko neurriak hartu.
- Autoak herri barrenetik atera.
- Gomendatutako Aparkalekuak eraiki.

Jarduera Teknikoa Areatzako udalean garatu zen. Bertan adierazitako helburu eta ondorio nagusiak jasotzen ditugu hurrengo lerroetan:

### 160 eskolaume OINEZBUSEAN

**OINEZBUSA**ri dagokionez, Areatza, Igorre, Lemoa eta Zeanurin parte hartzea handia izan zen eta esperientzia oso baikorra. Herri hauetako 160 eskolaumetik gorak parte hartu zuten. Frantzia eta Bretaña Handia eredutzat hartuz **OINEZBUSA** antolatu zen irailaren 18tik 22ra bitartean. Eskolaumeak hezitzaile, guraso eta bolondresen lagutzaz oinez joan ziren eskolara egun hauetan, aurrez erabakitako ordu eta lekuetan gelditu. Berdin gertatzen zen eskolatik irtendakoan etxera bueltatzeko. Laburbilduz, **OINEZBUSA**k autobus baten funtzionamendu berbera du baina eguratsera $CO_2$rik ez du igortzen.



### Mugikortasunaren gaineko jarduera teknikoak euskal erakundeen sostengua izan zuen

Arratiako Mugikortasunaren gaineko Jarduera Teknikoa ezin da aipatu gabe utzi, bertan izan baikenituen Arratiako udaletako eta eskualdeko politikari eta tekinkariak, baita Eusko Jaurlaritzako arduradunak eta Bizkaiako Foru Aldundiko ordezkariak ere.

### HELBURUAK ETA ONDORIOAK

- Eskualdeko Mugikortasun plana garatzea.
- Arratiarako irisgarritasuna hobetzea: Boroa-Lemoa autobia, Igorreko saihesbidea, Barazarreko hirugarren bidea osatu...
- Trenbidearen erabilera bultzatu, eta zergatik ez, Arratiako tranbiaren berreskurapena mahai gainean jarri.
- Lemoako geltokitik Arratiako beste lekuetara edo gutxienez Igorrera lotura azkarra lortu garraiobide publiko bitartez.
- Unibertsitate garraioa hobetu, Leioako unibertsitatera bereziki.
- Gaueko garraiobide publikoa.
- Trafikoa arindu.
- Hirigunetatik kotxeak atera gune publikoak ugaritu eta oinezkoentzak lekua irabazteko.
- Gomendatutako Aparkaleku guneak eraiki eta bizilagunentzako aparkalekuak egin.
- Autoa konpartitu.
- Arratiako bidegorria eraiki, baita udal bidegorriak ere.
- Autoaren arrazoizko erabileraren alde egin, gutxiago kutsatzen duten ordezko garraiobide batzuen erabilera bultzatuz.
- Arratiako udalen ahaleginak elkartu eskualdeko mugikortasuna denen artean hobetzeko, sortzen joaten diren proposamenak bultzatzeko erakunde kudeatzailea sortu.
- Oinezkoentzako guneak zabaldu herri bakoitzean eta gune horien herri arteko loturak egin.

**Alderdi sozioekonomikoa Tokiko Agenda 21etan eta zentzu honetan lan egiten duten eskualdeko bi erakunde**

A r r a t i a

# KONPROMISO SOZIOEKONOMIKOAK UDALETAKO EKINTZA PLANETAN

2004ko uztailean egindako "Aalborg+10" Batzarrean, Europako Herri eta hiri iraunkorren aldeko kanpainaren partaide diren gobernuek tokiko komunitateen etorkizun iraunkorra ahalbidetzeko hainbat konpromiso hartu zituzten bere gain. Konpromiso horietan gobernagarritasuna, udal kudeaketa iraunkorra, natura baliabideen kontsumo arduratsua, osasuna… bezalako gaiak azaltzen dira, baina alderdi sozioekonomikoak ere bai, denak baitira beharrezkoak gure herrien garapen iraunkorra lortzeko bidean.

## Aalborg+10eko konpromiso sozioekonomikoak

**8.KONPROMISOA: TOKIKO EKONOMIA INDARTSU ETA IRAUNKORRA:** "Ingurumena kaltetu gabe lan mundurako sarrera ahalbidetzen duen Tokiko ekonomia indartsua sortu eta sendotuko dugu".

Horregatik lan egingo dugu:

- Tokiko lanbidea eta ekintzaileak sustatzeko eta babesteko neurriak hartuz.
- Tokiko ekimenekin lankidetzan arituz praktika korporatibo egokiak sustatu eta ezartzeko.
- Negozioen kokapen eta garapenean iraunkortasun printzipioak garatuz eta ezarriz.
- Eskualde integratu eta kalitate altua duten tokiko merkatuak bultzatuz.
- Tokiko turismo iraunkorra sustatuz.

**9. KONPROMISOA: ZUZENTASUNA ETA GIZARTE JUSTIZIA:** "Hiri barneratzaile eta solidarioekin konprometitzen gara".

Horregatik lan egingo dugu:

- Txirotasunari aurre hartzeko eta bere eraginak arintzeko programak garatuz eta ezarriz.
- Sarbide ekitatiboa ziurtatuz Zerbitzu publikoetan, hezkuntzan, lan aukeretan, gaitasunetan eta ekintza kulturaletan.
- Gizarte barneraketa sustatuz eta eskubide eta aukera berdintasuna ziurtatuz.
- Kalitatezko Etxebizitza eta bizi baldintzak ahalbidetuz.

## Konpromiso hauek udaletako Ekintza Planetan zehaztuta daude

Tokiko Agenda 21 aipatutako konpromisoak egoki garatu ahal izateko tresna eranginkorrenetakoa da eta honen barnean konpromisoak udal bakoitzeko Ekintza Planetan zehaztuta daude. Hain zuzen ere, Alderdi sozioekonomikoak hurrengo Lerro Estrategikoetan (Helburu orokorrak) eta Ekintza programetan (Helburu zehatzak) lantzen dira:

- Baldintza sozioekonomikoak hobetzeko azpiegituren garapena eta egokitzapena.
- Ekintza soziokulturalen sustapena.
- Ekintza ekonomikoen sustapena eta dibertsifikazioa: merkataritza, turismoa…
- Tokiko bizilagunen beharrak asetzen dituen etxebizitza politikaren garapena.

## Ezinbestekoa da udalen eta eskualdeko erakundeen arteko lankidetza

Helburu hauek lortzeko garatu behar diren ekintza eta jarduerak definitzeko, zehazteko eta garatzeko, udalen arteko eta eskualdeko bestelako erakundeen arteko lankidetza ezinbestekoa da, esaterako Arratiako Udalen Mankomunitatea, Arratiako Behargintza eta Gorbeialde beharrezkoak dira prozesu honetan.

Horregatik guztiagatik, lan koordinatua egiten ari gara udal bakoitzak lehentasunezko ekintzak zehaztu ditzan eta bere Ekintza Planean barneratu.

Eskualdeko lankidetzaren adibide gisa, orrialde hauetan Arratiako bi erakundeen lanaren berri ematea egokia iruditu zaigu.

Azken batean, esan bezala, garapen iraunkorra denon kontua baita.



### Arratiako BEHARGINTZA

# "Arratiako Behargintza eskualdeko garapena sustatzen"

## Bere negozioa sortu nahi dutenei zerbitzua ematen diegu

Arratiako Behargintzak, eskualdeko enplegu eta garapen zentro bezala, Arratiaren garapenaren alde lan egiten du. Garapen hau bultzatzeko, Arratian bere negozio propioa sortu nahi duten pertsonei zuzendutako zerbitzua eskaintzen du, beste zerbitzu batzuen artean. Autoenplegua deituriko zerbitzutik "Viajes Ecuador Bidaiak" izeneko bidaia agentzia da abian jarri den azken enpresa. Proiektu honen sustatzailea Almudena Jordán arratiarra da. Almudenak buruan bueltaka zeukan negozio ideia planteatu zion Behargintzari eta gaur egun bere negozio propioa dauka. Honetarako, Behargintzak Enpresa Kudeaketan formazioa eta enpresa sortu arteko eman beharreko pausuetan aholkularitza eskaini dio, hala nola, ideiaren garapenean, enpresaren bideragarritasunaren azterketan, finantzaketa eta diru laguntzen lorpenean, enpresaren abiaraztean, eta abarrean.




## Bere negozioa duten autonomoei ere

Arratiaren garapena lortzeko bere negozioa sortu nahi dutenei eskainitako zerbitzuaz gain, negozioa sortuta daukaten pertsonei zuzendutako programak opatzen ditu Arratiako Behargintzak. Azaroak 13an adibidez, dendari autonomoei eskainitako formazio programa bat jarriko da abian. "Merkataritza kudeaketaren hobekuntza izenpean, Bezeroenganako harrera eta komunikazio teknikak, negozioaren kudeaketa eta aplikazio informatikoak landuko dira besteak beste".

Laburbilduz, Arratiako Behargintzak bere zerbitzuen erabiltzaile izan daitekeen pertsonen perfila zabaldu du. Pertsona fisikoei eskainitako zerbitzuak langabetuei eta besterentzat batentzat lan egiten dutenei eskaintzeaz gain, autonomoei ere opatzen dizkio. Gainera autonomoak enpresari direnez, Behargintzatik Arratiako enpresei emandako zerbitzuetaz ere baliatu daitezke.

### GORBEIALDE nekazal sustapenerako elkartea

# "Arratiako auzoetan seinalizazioa jarri dugu, zerbitzuak eta bisitariak galdu gabe iritsi daitezen"

Kontuan izan behar dogu Arratiako herririk gehienak lurrez zabalak eta auzunez ugariak direla, bertan bizi garenok auzuneen izenak ezagutzen doguz, behintzat izen gehienak gitxi gora behera kokatzen doguz, baie gaur egun kanpoko jendea eta kanpotik jatorkiguzan zerbizioak ugariagoak dira eta bertakook baserri eta auzuneen izenak jakitea ez da nahikoa, kanpotarrak seinaleak eskatzen deuskuez auzune eta baserri ezbardinak non dagozan jakiteko.

## Toponimia ofizialeko, kolore eta itxura ezberdinetako seinaleak

Aspaldi honetan herri gehienetako auzuneetara heltzeko bide kurutzetan seinaleak ipini dira, batzuk berdeak, beste batzuk zuriak, besteak ordea egurrezkoak... eta sorpresa batzuk be izan doguz, toponimoakaz sorpresa positiboak, nire ustez, era batera esan baina beste era batera idatzi, hor Euskaltzaindiaren beharra eta ardura. Dana dala Gorbeialde Alkartean izan dogun ardura arlo haundi baten konponduta dago, Arratiako udaletxeak kontzientziatu dira infraestruktura honeen balioagaz eta ia herri guztiak arlo honetan pauso ezbardinak emon dauriez (seinaleak, herriko planoak, kaleetako mapak...).

Gorbeialde landa garapenerako alkarteak proiektu batzuk lagundu dauz, beste batzuetara ez gara heldu eta aurrerantzean barriak be izango doguz Gure baserri eta auzuneetako seinalizazioa inportantea da, bertara medikua etorri behar bajaku, edo ta suhiltzaileak edo ertzaintza edota anbulantzia eta zergaitik ez "bilbotar" bat bertako produktuak (gaztaia, txorizoak edo baserriko ogia erosten) edota Nekazalturismo baserriren bat topetan...

Aurrerantzean seinalizazioari buruz ideia barriak eukiko doguz. Eta zuok, ideia barririk?

